

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ.
62n. ZENBAKIA
OTSAILA
— 1983 —

M. Artetxe



ARTETXE JOSE M.^a
EUKADI'KO
GUDAROSTEEN
TALDE-BURUA
(TENIENTE)
(† ZEANURI'N 1983-I-14)

GOSEAREN AURKA

Aurten be «Esku-Alkartuak» deritxon gosearen aurkako ekiñaldia ba-datorku, orretarako arduratzen diran ekintzailleak gertatuta.

Gizartean biziak bere arazoak daukaz, bai sorre-ran bizi barriak sortzeko egoera txarrean aurkitzen diran sendien aldetik, bai seme-alabak aurrera aterateko erreztasunik ez daukenen aldetik eta gizaki barria sortu ondoren onartzea emon ezin dautsoen guraso askoren aldetik. Ortik aspaldion ainbeste gorabeera sortzen dauzan jaio-bako umeak iltearen arazo mingarri ta gizartearentzat jokabide lotsagarria.



Baiña olako arazo larrien gaiñetik ekinaldi onek gosez ilten diran edo ilteko arriskuan dagozan ainbeste gizakiren egoera samiña agertzen dausku.

Munduan bi milla milloi-inguru dira bear dan bestean asetu barik, bear dan lez gosea kendu barik bizi diran gizakiak, euretatik bosteun milloi gosez bizi diranak, euren artean erdiak inguru bost urtetik beerako umeak: 10.000 lagun ilten dira egunero janaririk ez daukelako.

Gosez bizi diran eta gosez ilten diran oneitatik % 95 Irugarren mundua esaten jaken tokietan bizi dira.

ESKU ALKARTUAK erakundeak laguntzen dautse egoera larri onetan bizi diranai, irugarren munduan diran beste erakunde batzun bidez, euren lurgintzarako, osasungintzarako, eziketarako eta gizarte-arazoetarako laguntza emonaz. Guk emoten dogun laguntza zuzenean eltzen da curakana, beste bitarteko barik.

Zezeillean dogun ekiñaldi oneri laguntzea geure zeregiña dogu ba, euskaldunak mundu onetan kideko garala sinisten dogun neurrian.

Joan dan urtean laguntza emonaz sortu diran erakundeen artean oneik aitatzen dira: Guatemala'n gaiso-etxe bat egin, Txile'ko Arauko aldean, Lota del Mar deritxon tokian, arrantzale alkargoa aurrera ateratea; India'ko Chitrasenpur'en, Kalkuta'tik 60 Km.'ra, 50 andrarentzat esku-langitza; Indonesia'n, Loboniki lurraldean lugintzarako lurrak ureztatzeko lanak; Afrika'ko Ruanda'n, Biruyi izeneko errian janaritze-tokia...

Izkilluak egiten eta sarritan osasun-kalte diran eralketa askotan ainbeste diru-emote izugarri egiten diran aldi onetan gizartekide doguzanen artean bear-kizun negargarri onek ikusteak min emoten dausku ta emon bear dausku, baiña gizarte onegaz batera geu be errudun ez izatea nai ba'dogu lagundu dagiegun anai beartsu onci. Gu nasai bizi ba'gara, munduko ondasunen banaketa egikeran geiegi artu dogulako da, eta munduko ondasunak, lenengo, guztien gosea kendu ta bear-izan larriak beteteko dira.

ESKU-ALKARTUAK laguntzaren zain dauka-gu, eroan dagigun geure laguntza eleizetara naiz diru-etxe ta aurrezki-kutxetara.

IKASTOLAK

ELBIRA ZIPITRIA

Ikastolak gure aldizkarietan ez dira asko aitatzen aspaldiko urteetan, baiña gai ad aspertu barik aztertu ta eguneratu-bearrekoa da.

Orainsu joan jakun Elbira Zipitria andereñoak gai oneri buruz zerbait esateko aukerea emoten dauku. Bera izan zan guda-ostean gure ikastolari bizitasun barria emon eutsen andra ausartia, bera bide barrien eta ezketagai barrien asmatzaille ta eragille bere aldian... baiña gai ori beste idazlan baten aztertuko dau ZER'en zerbaki onek. Begiratu dagiguzan ba ikastolak eurak.

EUSKAREA

Ikastoletan euren seme-alabak daukezan guraso batzui olako zerbait entzun dautsegu. Gure mutikoak (edo neskatxuak) ez ekian erdera-modurik ikastolara joan zanean, baiña urte gitxitan euskerea itzi alde batera ta erdere bala-bala erabilten ikasi dau ikastolan.

Giroaren ondoren larria izan leiteke ori, ez ikastolearen errua, baiña arazo ori aztertu-bearra izango dau ikastola batek baiño geiagok.

Euren artu-emonetan euskerea errez eta beti erabilten ikasi bear dabe ume euskaldunak eta orretarako ikastolako giroa euskalduna izan bear, irakasleakaz eta umeen artean diran artu-emonak euskeraz izatea lortu bear, eskoletan eta kanpoan euskereak daukan giroa erreza ta gurasoen euskeratik ur dagoana izatea eskuratu bear.

Ondo dago gramatika ta iztegiatan arau barriak ikastea, baiña oiñarriak kendu barik, eta oiñarria beti egunero erabilten dan euskerea da. Ori jantzi, apaindu ta edertu bear dan berbetea.

EUSKAL-JAKINTZA

Euskereaz batera eta euskeraz, zalantza barik, gure gai bereziak ikasi bear dira: Gure kondaira, gure lutelestia, gure giza-iztia (antropolojia) gure jakin-gaiak (zientzia) eta beste gai asko.

Ikastoletan, euskeraz berba egiten daben tokietan gitxienez, irakasten diran beste gai guztiak be euskeraz emon-bearrekoak dira. Izan daitekez ikas-liburuen arazoak, irakasleen gaitasunik-ezaren arazoa ta olakoak, baiña ikastolan umeak euren ikasgalak erdera ikasten ba'dabez, gero euren artean be erderaz egingo dabe berba, ori gogo-iztiko legea da. Orrelan gure erri euskaldunak erdeldun biurtzeko bidea izango da ikastolea, ez euskalduntzekoa. Ori litzake ikastolen besterenganatze edo alinaziñorik mingarriena ta kaltegarriena.

Eta ez bildurrik izan gaiak euskeraz ikasi dabezelako gero oztopoak izango dirala. Gure ikastetxe Nagusiak orretarako egokitu dira ume onek mailla orretara eldu orduko, eta, gaiñera, ez dot uste ikasleak erdere ez jakiteari bildurrik izan bear dautsegunik. Ori, zalantza barik, ikasiko dabe eta errez.

LAGUNTZAK

Oraindiño be ikastolak euskal-jaiak, zozketak eta olakoak egitera beartuta egoten dira. Ori ondo dago gurasoak eta euskal-zaleak arduratu daitezcan, baiña ez daitea izan diru-bearkizun gogorak eraginda. Euzkadi'n, Jaurilaritza-eskubideak daukaguzala, ikastolak erri-eskolak baiño obeto lagunduak izan bear dabe, sailla guztietan ondo orniduak.

EZIKETA-BATZA

Ikastola guztiak beetik asita osotzen dan eziketa batza bear dabe, gurasoak eta irakasleak eta al dan neurrian ikasleak, barru dirala, ikastola-barruan beste lan batzuk (garbikuzia, jantokia...) eta olakoen ardurea daukenak be zelan edo alan sartzen dirala.

Ezin aitzu gurasoak dirala lenengo ezitzaileak, Sortaldeko laterriak geinetan jarraitzen daben eritxia onartuaz.

Bide orretan aztertu bearko dira eziketako arazo guztiak, erlejiño-arazoa be barru dala. Or egin bearko da irakasleak aukeratzean lan zeatza eta arduragarria. Ez da errez ikastolea ondo aurrera ateratea, gurasoen eta irakasleen artean giro egokia ez ba'dago.

Eta erlejiño-arloan, gurasoak alan nai dabelako, kristiñauen bidea artzen ba'da, kristiñauen alkarteagaz, geienetan parrokiagaz, be artu-emonak bearko dira: Eziña da umeak erlejiño-arloan ondo aztea, alkarte baten barruan izan ezik. Fedea exin ondo bizi leiteke, alkarte-giroan ez ba'da eta erlejiñorako ikastaldiak be oso labur heratzen dira fede biziaren katekesisa ta giroa umeen eta gurasoen artean sortzen ez ba'da.

SENDI-GIROA

Eziketa-talde orretara sartzen diranen artean eta ikastolan sendi-giro itxaropentsua ta euskal-girokoa sortzen ez ba'da, ez da izango ikaslearentzat giro egokia ikastolearena.

Poztasunezko giro ori sortzeko laguntza izan bearko dabe jolasak, ibil-aldiak, jakintzazko ekiñaldi bereziak eta olakoak.

ELBIRA ZIPITRIARI, AGUR!

Elbira Zipitria, gure izkuntzak izan dauan lenengoetariko andereño ospetsua, Donostia'n il zan 1982'gneko Gabonillaren 27'garrenean; urrengo egunean Bizkaï'ko bere Mañu kutunean obiratu.

Urte asko dira Elbira ezagutu genduala bere Donostia'ko ikastola berezi ta txukunean. Lenengotik erri-miñez geisoturik egoala konturatu nintzan gorputzez txiki ta zimel baiña biotzez eta gogoz aundia, jakituriz aberatsa zala andereño a. Gure adiskide ona zan Garitaonandia'tar Gotzon, «Mañuko abadea», ameskide kutun eta begiko izan eban. «Agur» aldizkaria sortu ta argitaratu genduanean lagunkide izan genduan lenengotik.

Gotzon il zanean oñeztarriak jota lez geratu jakun gure Ira. Benetan euskaldun jator bi areintzat, euskeraren muiña ta ardatzaren jaube ziran adiskide areintzat iruntzi-eziña zan euskera iraulia edo irautzaillea.

Ira'ren eskuz-idazkera oso ulergaitza izanik makiña bat denpora egiten genduan Beistegi ta biok idaz-lanen esanaia ulertzeko. Baiña arek idatzitakoan beti egoan Aberri miñez egindako zeozer jakingarri.

Ez dot uste Ira'k azken-urte oneitan poztasun larregi izan dauanik. Gaztañaga abadeak

Mañu'ko eleizkisunean azaldu eban lez, «Dana zuzen, dana eder, dana ondo» nai izaten eban Ira'k, ta jakiña, olako batentzat arantzaz betetako bideak baiño ez dira aurkitzen mundu onetan.

* * *

«Agur» aldizkaria euskaldunen laguntzarik ezak ito ebanetik ona Aralar'go San Migel'en alkar ikusten genduan ea urtero, gure sendiagaz batera an egiten genduzan udako egotaldi labur baiña gozoetan. Azken uda onetan be an izan giñan azkenengoz. «Zer moduz Ira?» —esanda agurtzean—, «Gaizki Josu, oso gaizki» zan bere urteroko erantzuna.

Beti bat entzuteak siñez-gogor egin ginduzan baiña aurten Jaungoikoak bein eta betiko bereganatu nai izan dau aurki! Azken-bazkalondoko barriketa-aldian azaldu eustanez, gure lagunak arantza bat eukan biotzean sartuta. Abertzale amorratu ta sutsu arek ez eban izparringirik aspaldian irakutzen baiña politika nasteborrastearen oiartzunaren batek jo eban bere belarrietara ta orrelan oarturik, abertzaleen arteko ezbardintasanakaz minduta, arduratuta egoan:

—«Josu, denok ez al zerate alkar-tuko?».

Nik mingortasuna gozotuaian onako au edo antzekoa erantzun neutson:

«Bai, Ira, gure etsaiak, egoaldeko otso aundiak, barriro bere erpak erakusten dauskuzanean, abertzaleok barriro alkartu-bearra izango dogu ta egoera ori Euskalerraren kondaira ezagutzen dogunontzat ez da urrun nabari...».

Ez dakit siñestu eustan ala ez, baiña lasaiago gelditu zalakoan nago eta ez neban uste agurtu giñanean azkenez izango zanik.

Gotzon Garitaonandia ta Bermeo'ko Mañu auzo zoragarria ezagutu ebazanetik, idealismoak eraginda, ango illerrian bere gorputza lurperatzea eskatu ei eban, illobiko arrian zer idatzi ta guzti aukeratu ondoren.

Bere naia betetzeko Donostiko ikasle izandakoak ta beste lagun on talde bat etorri ziran bere gorpua aurretik zala, autobus eta berebilletan, Bermeo'tar ta beste bizkaitar lagun taldetxo bategaz batera Elbira Zipitria izan zanari azkenagurra egitera.

Gu be tarteko giñan eta bere omenez zeozer egitekoan barriro be euskeraz idazten astea izango dalakoan, nagikeria edo ilusiorik-ezari uko egiñaz, emen natorkizue, ZER'go adiskideok, Zipitria'ri agur esanaz batera nere laguntza apala eskeintzeko asmoz.

ARENAZA'tar Josu

KATUAK, XAGUAK ETA GURE DIRUAK

«Xaguak urte bete baten 90.000 milloi pezeta jan dabez Espaiñietako Lateralan». Onela diño DEIA'k, 1982-XII-27'añ, letra andiagaz lenengo orrian. «Arratoiak dira gizonak munduan izan deben etsarik aundiena. Gerra guztiak baiño oker aundiagoak egin devez historian zear...»

* * *

Eta gizonak asma daben inbenturik onena xaguak akabatzeko, katua izan da. Baserrietako sukalde guztietan katua egon da sutondoan amamari lagun egiten. Sorgiñak eurak be, kantu-antza artzen eben gizonengana agertzeko. Tximiñitik beera sartzen ei zan lapurretan eta etxeko-andrea ikaratu be bai. Gizonak pentsatu eban andrakoz jantzi eta zai egotia sutondoan, gorua esku batean eta burruntzia bestean.

Sartu zan katu-sorgiña eta andraz jantzitako gizon bizardunari esan eutzon:

—Gixona, eta goruagaz?

—Katua, eta berbetan?

Erantzun gizonak, burruntzia sabeletik sartunda. Eskapa eban katuak garraxi bizian. Bigaramonian alboko atsua egoan ardi-illik, tripak odoletan.

* * *

Katua gizonaren lagun egin zan egunean, asi ziran bere ganbarak ondo zainduta egoten: gabaz eta egunez katua xaguen zai. Baiña, sukalde-bajuak kendu ebezanian ekonomikak eta butanozkoak ipinteko, amaitu zirean sukaldeetako katuak, nun egon be ez daukielako.

Gaurko etxiak eta erriak katuen kontra dagoz. Etxeak lenago zulotxoak eukien katuak sartun-irtenak egiteko; gaur ez daukie nundik nora sartun eta nun beuren buruak gorde be ez. Onen ondorengoak: katuak gutxitu eta arratoiak ugaritu. Onekin, berriz, triskantza ugariak baztarretan.

* * *

Eguneroko izparringiak ez dau esaten zenbat diru gastatzen dan «campana de desratización» bakoitzeko. Oraintsu egin dabe geure errian, orretarako kanpotik gizonak ekarrita, len azariak akabatzeko egiten zan antzera. Itsas-erri baten bizi naz eta erre-xioa daukagu alboan. Maria biziak itsasoan eta ur-jasa aundiak erreixoan diranian, arratoi guztiak irte-ten dabe errira alkantarilla-zuloetatik. Aldi bakoitzeko «campana» bat eskatzen dabe jendiak. Bereala beste bat. Eta beste bat. Sekulan amaitzen ez dan letania.

* * *

Eta, badakizu zer pasaten dan aldi bakoitzeko? Nere etze-inguruko baratzen katuak dagoz dozena bat be bai; ba, kanpaiña bakoitzeko katuren bat galtzen da.

Eta bat baiño geiago il-zorian egoten dira. Arratoiak aurkako kanpaiña bakoitzean, katuak garbitzen dira arratoin onerako. Ez dakit arratoi pozoidunak janda ala pozoia bera janda, iltzen bedira be.

Emen gartaten dana, uste dot beste errietan be berdin pasako dala. Orain illebeten pare bat dala egin eben kanpaiñan, iru ar eder aldendu ziran eta eteian nebazan ama eta bere seme ar bat, biak egon dira gaixorik, odola aotik eta atzetik botaz...

* * *

Obe leukie Udal-etxeak ainbeste kanpaiña egin barik, obeto katuak zaintzea. Jaten emon dagozan apurreri eta beuren buruak gordeteko tokitxuak egin, geurko etxe berrietan ez dago-ta eurentzako tokirik.

Erroma'ko Foro Romano inguru guztian makiña bat katu ibiltzen da ibilli, txitxarroak sardan bezela. Gertu egoen Animalien Aldeko etxe bat eta an ikusten nebazan katuok sartzen eta irteten. Foro Romano bertan be, lengo arrasto zaarren artean, topeko dabe nun gorderik. Persona asko ikusi izan dodaz an katuei jaten emoten. Ez dot usten arratoi askorik ibiliko danik.

* * *

Amaitzeko, Getaria'n gertaten dana esango dautzut. Bada an itsasoan sartzen dan menditxo bat: «Getari'ko Xagua» deitzen dautsagu guk. «San Anton» be bai; baiña, badau izen berezia eta ez naz akordaten. Mendi orren atzeko aldetik erriruntz, an dago Telaipe jatetxea. Bertako negusiak, jatetxearen ondakiñekin, ogeita amar katu baiño geiagori jaten emoten dautse. Menditxoan katuak ugari; baiña, arratoirik ez.

Ori dok zuur jokatzera eta burua izatea. Zorionak Talaipe'ko jaunari.

* * *

Bela-barkuko patroï bateri auxen galdetu eutsoen: —Zenbat otzara (otarra, sakia)-lur daukaz mendi onek?

—Alako otzarea egin ezkeren, bat.

ANES ARRINDA

GALIZIA'RA

JOAN-ETORRIA (II)

Gaurko idazlantxu onen idazpuru bardiñaz idatzi genduban ZER onetan beste idazlantxu bat, Galizi'tik zear ikusi-barriak genduzan ikusgarrien zerbait aipatuaz, baiña, lantxu ori luzegi ez egitearren Tekla'ko mendi gaiñean emon geuntsan amaya, bi'garren lantxu baten amaiera emongo geuntsola esanaz.

Tekla mendia, ez da Galizia'ko mendirik goitienetikua, 550 neurkin, baiña tinkatuta aurkitzen dan lurralde orretan ainbat goitia-goa iruditzen da, La Guardia'ko mugapean eta Miño ibaia itxasora sartzen dan gaiñean aurkitzen dan esketiño, eta, beste mendirik inguruan ez-dauanez, beronek dan baiño aundiagoa emoten daualako. Orixe bai, bere gaillurretik gozartzen diran ikuskizunak zoragarriak dira.

Mendi erpiña da, goiko gaillurretik arri-borobil aundi bat bilinbolaka jaurti ezker ea itxasoraño elduko litzakena. Bai-ta ez dago esan bearrik, Portugal'go laterria oso urbil aurkitzen dala.

Mendi-txuntxur bi dituz, Sarkaldera txikerragoa, arrizko gurutze aundi bat gaiñean dauala

eta, Sorkaldera, aundiagoa beste gurutze aundiago bat eta beste zerbait dituala eta, txuntxur bate-tik bestera Gurutze-bide aintziñako bat daukola.

Galiziarrentzat baiña, mendi onek dauan ikuskizunik ajolatsue-na ta beraz, garrantzitsuena txuntxurrik aundiena baiño pizkatxu bat berago aurkitzen dan Tekla Donea'ren txadona, eleizatxua da, bada, galiziarrek ziñezkera aundia dautsoe Neuskuts Ziñopa orreri; ortik ei-dator geien bat mendi ortako Tekla Done orren aomena.

* * *

Eleizatxu orrek ez dau zer ikusirik at-etik, kanpotik begiratuta, joale-ormatxua (espadaña) gaitik ez-balitzake, iñork ez leuke esango eleiza danik. Bai ostera barruan, ba-dau zer ikusi bikaiñik; «visigotico» aldikoa ei-da eta, txadontxu onetan ospatuten diran eleizkizunak erdi-mendekoak izaten ei dira.

Lenago aipatu dogun Gurutze-bide ori ain antziñakoa izateagaitik edo, oso ertitsua da, artistikua.

* * *

Nai-ta lenagoko bide zarra oraindik be errez ikusiten dan, be-

rebillez igoten da goi-goiraño, jakiña! bira-biraka.

Mendi done (galiziarrentzat) jatsi ta laster, erritik urteeran izan genduan poztasun bat: Lenengo ikusi zan arriolio (gasolina) saltokian geratu-bearra izan eban «gure»berebil aundi orrek eta, ara nun ikusiten dogun gure euzko Ikurrin maitia Europa eta Galizi, Katalunya'koaren aldamenean, Euzkadi'n berton ikusi dogun baizen txairo. Zelan biotza dardar ipinten dauan, norberaren Aberritik ain urrun, maite dogun irudia ikusiteak!

* * *

Berriz Vigo eta Pontevedra eskualdeetako matsti ederrak ikusiten genduzala eldu gintzazan lotetxera.

Aipatu doguzan erki orreitan mats-ondo ugariak dagoz, Galizi'n edaten dan baiño ardaugai go batzeko. Eta, beraz, lurralde orretako aberastasun aundi bat izateko.


* * *

Galizia'ko aberaztasunik aundiena baiña, gure ustez, arraintza da eta, arraintza onen tartean maxkurra (marisco), nai-ta lege gogorren menpean aurkitzen dan arrantza ori; ezin leike edozeiñek eta edozelan arrapatu.

Galizia'k Iberia'ko beste edozein lurraldek baiño itsas-kolko eta itsas-adar geiago ditu, batez be itsas-adarrak eta, orreitan asiten da beste iñon baiño maxkur geigo.

Lugintza be ainbat dau, baiña, basetxea ta lugin-lurrak geiegi zakabanatuta aurkitzen dira, batez be Orense, Pontevedra ta Lugo'n. Azkenengo erki onetan barriz, aberats-aberatsen eskuetan zati aundiak, ezetarikorik ez edo muxkintza txikerrak lortzen dirala.

ALTUNA'tar Josu



ARATUSTEAK

ITUREN ETA ZUBIETA'KO
YOALDUNAK

Dantza asko dagoz Aratustee-tan eta gaur Naparroa'ko dantza bereizi bat ikusiko dogu: Ituren eta Zubieta'ko Yoaldun'en dantzak. Bi erri onek euskaldunak dira eta Gipuzkoa'tik ez dagoz urrun. Festa ospetsuak egiten dabez, Errege-egunetik asi eta Garizumaren aurreko jaiaren bitartean.

Zer egunetan izango diran erabakitzeke, Ilbeltzaren, Urtarrillaren 17'an, San Anton egunean biltzen dira Ituren eta Zubieta'ko mutillak.

* * *

Festa, askoren artean osatzen dute:

1.^o—Yoaldunek: pauso-neurtuetan dantzatzen diran mutil-taldeak, yoale aundiak bizkarrean yoaz.

2.^o—Aratusteko mamarro eta moxorro eta mammo moltsoan edo sardan dabilzanak bakoitza bere aldetik.

3.^o—Gurdietan doazenek.

* * *

Yoaldunak buruan daramaten kapelak «ttunturro» dau izena; kartoiezkoa da eta barrutik eta kanpotik telea edo oyala; 55 zentimetro luze eta gaiñeko muturrean oillar-lumak zuri-beltz eta nabarrak. Sei zentimetro beerago, zintzilik 29 galartsu edo zinta kolorezkoak, 38 zentimetro luze bakoitza eta lau zabal. Onek amaitzen diran tokian zapi zuri bat buelta osoan sei zazpi zentimetro zabalekoa, dantzariari arpegian itzala edo gereizpea egiten dautsona.

* * *

ZUBIETAKOAK

Goiko partetik alkondara zuria eramaten dabe eta be-aldeetik saia zuri puntilleduna; gerrian ardi-narrua ille luzeagaz eta bere gaiñean bi zintzarri aundiak, amar kilo-koak bakoitza, estu-estu lotunda, 36 zentimetro luzeroa eta aoan



12, zabal. Danen azpitik praka urdiñak belauetatik beerakoa bistan dabela. Antxiña eta oraintsu ere bai, oiñetan abarkak eroaten ebezan. Eskuan «ixopua» zaldilleekin egiña eta eskumuturra egurrezkoa, iltze oriekin ornitua. Lurrera begira eraman ei dabe ixopua. Jantzi au etxean gordeten da, kontu aundiz urrungo urterako. Jabea ezkontzen danean, ezkongai bateri saltzen dautso.

ITURENGOAK

Emakume-gona zuria puntilladuna prake-gaiñetik; gaiñean bular-aldeetik ardi-narru bat gogor lotunda au be; bizkarretik beste bat. Gerrian oso gogor lotunda, bi zintzarri edo yoale aundiak; gorango beste bi yoale txikiak. Ondorengo gauzak, antzekoak dira.

* * *

Bi errietako yoaldunen taldeak, bezperatik irteten dabe «txerri-puska»-eskean. Txerrikiak emoten dautsez eta arrautzak. Biltzen dabena ostatura eramaten dabe; baita be auzo bakoitzetik txekor bat, gero danentzakao janak preparateko. Eske onetan yoaldunekin batera aspo-soiñua eta pandereta bat irteten dabe. Umiak be bai, ondoren. Ibilbidea gero egingo dana bera da; dantzan egiten dana, astelenean eta asteartean...

* * *

Ituren'go festaren zati nagusi bat Sagardia emparantzan egiten da. Gero yoaldunak, beuren pauso-neurtuekin, ritmoekin, auzoetara zabaltzen doiaz erriari buelta osoa emon arte. Gero ostatura biltzen dira. Ostatuan egin ei dabez lenengo dantzak eta ondorengo jan-edanak.

Zubieta'n be, berdintsu jokaten dabe: ostatuan lenego saioak, gero pelota-lekua duan plazan eta gero erri guztiari bueltea emon.

ALKARREN ARTEKO FESTA

Gauzia ez da erri bakoitzean amaituten: batek bestiari bisita egiten dautsoe. Baiña, aurrera joan aurretik, ona erri bakoitzean zer egiten daben.



ITUREN

na, Kastañeruena eta abar, gogoaren eta irudimenaren neurrira...

* * *

Aztelena. Zubietakoak beuren errian goizetik ibilli dira. Orain amabiak dira ostatuan bildu diranean beuren lenengo saioa egiteko, Ituren'eruntz irten baiño lenago. Gero, berriz, plazan buelta batzuek. Badoaz bidean, gurdiak aurretik, gero oiñezko beste mamuak eta azkenean yoaldunak.

Ituren'a eldu orduko, ordu biak. Alkartzen dira Ituren'go yoaldun, mamu eta gurdiekin. Alkarrekin festa ospatzen dabe eta Zubietakoak enparantzan lau edo bost aldiz dantzan ekiten dabe, andik ostatura joateko, bazkaltzera.

* * *

Asteartea. Iturengoak doaz Zubietara. Auek bidera irteten dautsee zubira arte, yoaldunek aurretik eta gurdiak atzetik... Plazan bost dantza-aldi egin eta danok ostatura...

.....

Dantza guztiak espirituaren agerpen batzuk dira: pozgarriak erriko festeetan, erlijio-usañez eta majia-kutsuz jantziak, gizarte-agintaritzari buruzkoak, guda-zantzokoak, maite-miñak agertze-koak, dolu-miñezkoak...

Festa auek nun sartu? Badabe festa-usaiña; yoaldunen ekintzak ba dau misteriorik...

Auzoen arteko artu-emanak obetzeko egiñak ote diraz... Euskalarriko gauzak zuztarrak dabez beeraiñoakoak eta dantza auek aztikeriz eta misterioz agertzen dira beteta.

Yoaleak eta zintzarriak, emen bezela European be, sorginkeriak eta espiritu gaiztoak uxatzeko eta kanpora botateko, indarra badaukie euki. Eguskia goraka asi dan unean, udaberriaren esperoan, gaeuzko espiritu txar guztiak botateko ordua da. Neguko gau beltza illun-illuna bota aal izateko yoale aundiak bear dira.

Garai oneri gure aurrekoek II-

beltza ipiñi eutsoen izena; baiña, gure prehistoriaren une batzuetan beltza baiño beltzagoa zan: emen koba-zuloetan renoen azurrak topatzen dira eta renoek izotzetako basauntzak dira. Emen izoitz beltzak izan ziran eta negu luze-luzeak. Eguzki-argiaren eta berotasunaren zai-zai jende guztia. Ez da, ba, arritzeko, eguzkia goraka astein, festa agitea, sukaldean egur aundiak, mokor aundiak, sartzea (Olentzero-mokorra), suek agitea... neguaren deabrua uxatzeko. Gaur-egun ez doguz Aratus-teak eta Karnebalak orretarako egiten. Festa egiten dogu oitura dalako. ARRINDA'tar Anes

EUSKARA

«Euskara
jaiki adi plazara»
hatxea
kapel aundi zatarra
buruan dekala...
Alai! Alai!
Plazara!

* * *

«Euskara
jaiki adi plazara»
akuilluka
Euskaltzaindi «xabala»
atzetik dekala...
Ala! Ala!
Plazara!

* * *

«Euskara
jeiki adi plazara»
gurutzea
alperrikako atxea
bizkerrean dekala...
Ala! Ala!
Plazara!

* * *

«Euskara
jaiki adi plazara»
arinketan,
larritasun estua
biotzean dekala...
Ala! Ala!
Plazara!

* * *

«Euskara
jaiki adi plazara».
INES LAZKAU'ko

Lenengo eguncan, astelenean, ostatura biltzen dira goizeko zortziretan, jantziak ondo eta erretaz ipintzeko, batez be, zintzarri edo yoaleen loturak gogor lotzeko, bakoitzak amar kilo pisatzen dabeta. Irten aurretik berakatz-zopa ederra jan. Bitartean beste mamuak, yoaleak ez diranak, jazten dira, eta gurdiak apaindu kalean.

* * *

«Artza» da mamu oietako be-reizi bat. Urteero ez dau urteten bere eginbiarra neketsua eta larria dalako. Jantziak astunak eta ume guztien ondoren ibilli bear arin-aringa, arrapateko. Jantzia: Ardinarru aundi bat bizkarrean, beste bat bularrean, anketan eta basoetan biña, burutik beera besta bat eta buruan basauntzaren bi adar aundi eta zintzarri bat lapotik zintzilika. Bere aurretik ibilli bear dau beste mamu parregarri eskas batek.

Beste edozelako mamu asko be bai. Gaiñera gurdisail bat. Era guztietakoak: Beltzan-jauregia, Sorgiñen-atxea, Olentzaro, Txalaparta, Kaiku-egillena, Sukaldarie-

Euskalerritik Mundura Begira

IRAN ETA IRAK

Milloi terdi gizaseme gaztek galdu dabe bizia azkeneko bi urten autan. Iran eta Irak arteko borrokan. Zergaitik sortu zan gudu zakar au? Ona zergaitik:

1.º: Iran'go jendea ariarra da (arioa); Irak'eko sendarra (semita). Naiz erlijio berekoak izan, ez dira, beraz, bi laterri aiek enda edo arraza berekoak.

2.º: Iran eta Irak'en arteko mugak oker eza-riak dagoz. Mugaz beste aldera, Juzistan derizan errialdea odolez sendarra dan jendea, errialde artako jende dana, Iran'en menpean dago.

3.º: Erljio berekoak, maomatarrak, dira bai Iran eta bai Irak, baiña erlijio berean era ezberdiñe-koak: Sundarrak (sunitak) Irak'eko jendeak, agintariak beintzat; eta Xiatarrak, (xiitak), Iran'goak. Eta, Xiatasuna Maoma'ren erlijioan sortu zan ezker, et-saiak izan dira xiatarrak eta sundarrak, Kristautasunaren altzoan ostelaritza edo protestantismua sortu zan ezker protestanteak eta katolikoak etsaiak izan diran bezala.

Ba dabe izan ere, xiatarrak protestanteen antza.

Sundarrak, Koran izeneko liburu doneaz gaiñera, Jainkoaren erakusketa lez artzen dabez aotik-belarri-
ra gordetako oitura eta aginduak. Ain zuzen, «Sun-
na», «Bidea», deitzen dautsoe itz utsez gordetako
Jainko-erakusketa orri.

Xiatarrek ordea, ez dabe idatzia ez dagoan «eka-
rri» edo «tradizio» ori ontzat artzen. Koran bakarra
da aientzat sinismen-oifnarri. «Ebangelio utsa»; «soilki
ebangelioa», oles egiten zuen Luter'ek ere, Ebange-
lioaz kanpoko «ekarri donea» ukatuaz.

«Xia» izenak «alderdia» esan nai du; politikarako
alderdi bat bezala jαιο bait zan xiatasuna: «Xiat'Ali»: «Ali'ren Alderdia».

Ali ori maomatarren irugarren Kalifa edo Agin-
tari Nagusia izan zan; Maoma'ren suña; Maoma'ren

alabatxo maite Fatima'rekin ezkondua. Maoma'ren
aideak, aitagiarrebak, izan ziran lenengo eta bigarren
kalifa ere; Abu Bark eta Omar emakume asko izan
bait zituan islamdarren Asaba Maoma'k.

Eraille baten aiztoak il zuan Ali Kalifa, eta bere
erailleak beste Kalifa bat izendatu zuten. Ali'ren
adiskideak ordea aren semearen alde, Husain'en al-
de, irten ziran eta «Xiat'Ali» edo «Ali'ren Alderdia»
antolatu zuten borrokarako.

Borroka artan galdu zuan bizia Hussain'ek eta
bere seme eta sendi guztiak. An galdu ziran Ali Kali-
faren ondorengo guztiak. Baiña ez zan «Ali'ren Al-
derdia», «Xiat'Ali», borroka artan ezereztu. Ordurar-
te politika-alderdi uts zana, erlijio-sail borrokalari
biurtu zan: Xiatarren Sailla.

Hussain printzipe gaztea, Fatima'ren semea,
santutzat artu eben, eta arrezkero aren bir-etorrera-
ren zai bizi dira. Etortzekoa omen da ba osteria mun-
dura, emen gizadiaren azkeneko Kalifa izatera, eta
aren atzetik azken-juizioa etorriko omen da. Ontan
Jeoba'ren Lekukoen antz aundia dabe xiatarrek, Jeo-
ba'ren Lekuko edo testiguak ere, azken-juizio aurre-
tik Kristo mundu ontako errege izatera noiz etorriko
dan zai bizi bait dira.

Irak'en agintariak sundarrak dira, baiña bertako
biztanlerik geienak, % 60, xiatarrak. Mugaz aruntz,
Homeini buru dabela, arroturik dabiltz xiatarrak, is-
lam osoa xiatar biurtu naiean. Iran'diko arrisku ori
gaiñetik kentzeko ekin zion Irak'ek izkilluz Iran'i.
Berak uste baiño gogorragoa irten zaio borroka.

Milloi t'erdi gorputz, basamortu artako ondar
kiskalgarrietan..., eta oraindik ez da lurralde aietan
pakerako biderik ikusten.

“GAZTELU”, OLERKARI

Urritu, eskastuz doa euskal idazleen barrutia. Eguzki naiz ekaitz, tantai lez lurrari eutsi eutzoenak ba-doakiguz beste aldeko barrutira. Eta, au tamala!, doazen orre in utsunea nok bete gitxi ikusten baztarretan. Arantza onek bizi-bizi zauritzen dausku biotza. Euzko-elerti gaixoa!

Egunokaz, urtea asiaz batera, eldu jaku Gaztelu'tar Jon Bautista —J. I. Goikoetxea Olaondo— euskal olerkari sotillaren eriotz-izparra. Donostia'n, azken urteotan bizi izan dan urian, il zan Errege egunez, eta urrengo arratsaldean, barikuz, egin jakozan illetak Artzain onaren elizan, Gipuzkoa'ko eliz-barrutiko eliz-nagusian, ainbat adiskide, euskaltzale ta euskal idazle bertan zirala otoizka.

Mendiz beintzat Orea'tik ur-samar dagoan Gaztelu giputz erritxoan jaiio zan J. I. Goikoetxea, 1908'ko maiatzaren 5'an, «Bordaxuri» baserrian. Gaztetxo zala kaputxinoetan egin zituan bere eliz-ikasketak, Altsatsu, Ondarribi, Lizarra eta Iruña'ko komentuetan. Gerra orduko mezako zan, eta euskaltzale errimea. 1936'ko zurrumbilo artean larri erabililla, Ameriketara jo bearra izan eban, beste lakaide askogaz batera. Eta 22 urtez beintzat an lan egin euskun arima-zaintzan, Argentina'ko Mar de Plata, Lavallol, Cordoba eta Mendoza'n batez be. Buenos Aires'en bizi zalarik, ango «Euskal-Etxea»n euskeraz erakusten eban. 1958'an Euskalerrira biurto zan, eta arrezkero guztian emen lan egin euskun, Auñamendi argitaldarian ain zuzen be.

Etxe onetan, eta aurretik, itzultzaille bikain agertu izan da beti, bietara euskal-erdera eta erdal-euskerara. Arlo onetako lanari buruz osperik gorengoena «Musika ixilla» liburuaz jaretsi eban; Frai Luis de León eta Jon Gurutzekoaren olerkiak emoten dauskuz berton euskeratuta. Iruron artean osotu gendu liburu au: Gaztelu'k, Orixe'k eta nik; iruron itzulpenak eta lanak datoz «Musika ixilla» liburuan. Norbaittek esan eban Frai Luis zala eguzkipeko lirikurik

aundiena, eta M. Pelaió'k Jon Gurutzekoaren olerkiagaitik, onen eresiak gizakiena baiño aingeruenago zirala esan euskun.

Eta Orixe'ek, liburu onen sarreran: «Gaztelu'k bi aundienetara jo du; euskeraz poliki jantzi ditu bi aundien orien olerkirik onenak. Ez ote du joko laister goina gure izkuntzak? Gu baiño obeki itzuliko dutenak etorri ditezke, jakiña, ta jatorrizkoekin berdindu ere egin ditezke dirudit, erabat gaintzea neke ba'da ere. Gutxi al lizake gure ele ederrarentzat, besterenak olan emaita, geronetik aiek lako olerkaririk atera ez ba'ledi ere?».

Amar dira Frai Luis'en olerkirik onenetatik euskeraz emonak, eta zortzi Jon Gurutzekoarenak. «Erabat esan, jatorrizkoa berdintzen du eskuarki», diño barriro be Orixe'k. Eta orrelaxe dozu. Beraz, ondo be ondo artua izan zan mistika liburu au. Gorralpen aundiak egin zituen izparringi ta aldizkarietan, Jose Artetxe'k, Jaime Azpitarte'k, Koldo Mitxelena'k... Itzulpen au dala-ta, Mitxelena'k onan: «Euskal poesiaren atzeaz eta geroaz kezkatzen denak usu erabiliko du, ezpairik gabe, esku artean».

Ez dakit orrela egin daben ala ez arrezkeroko euskal olerkariak; baiña merezi leukena, bai, ba-da. Eta Gaztelu'k, bertatik ikusiko dogunez, bide ortatik jo eban bere bizitzan, ots, il-barri dogun olerkari jatorraren lanak bide ortatik ibilliz osotuak dituzu. Mamin eta azal guren, gozo, giar. Ori izan bear leuke euskaldunon poesiak, geure euskalduntasun osoan, ez txoro, nora-ezeko, ames arlote, irudikizun ziztrin. Egia esan, gitxi baiño ez dira beste izkuntzetan be era onetako olerkariak. Guztioi egoki jaku, barriz, eredu orrei begira geure lanak burutzea. Goi-goi jarri bear da beti erdi-une zuria.

Iruren artean egiñiko liburu oni eraskiñ bat ezarri eutson Gaztelu'k, oso jakingarria. Euskal-neurkera daroa titulutzat. Eta berton azaltzen dauskuz euske-

raren neur-bideari buruzko gauzarik asko: 1) Mintzoa ta igikera: igikera da euskeraren neurbidetzat artu bear dana; 2) Ritmua; gauzen igigunak eta doiñuak dira ritmuaren gai; 3) Euskal-neurkera legeak; izki batekoak, bi ta iru izkidunak, lau ta bost izkidunak, sei ta zazpi izkidunak, itz lotuak; 4) Esakuntza; itzak geienez gogamenaren arauz alkar artuta dabiliz, eta ortik sortzen dira esakuntzak; 5) Neurtizketa; «neurtizketarako pikoak neurtu bear lirake, ez silabak»; 6) Koplarien egitura; begira koplara zaarrai, orreitan urrezko ale ugari aurkitu geinkez-eta; 7) Neurtizketarako eredu. Eta Frai Luis Leon'en «Zeruko bizia» deritxan olerkia jarten dausku begien aurrean, bost bertsoa ahapaldi au:

*«Lur bizigarri argi,
ez otzez ez beroz eztigarken
zoruntasun-belardi,
bazkategi gizen,
betiko poziturburu garden».*

Lenengo bertsoa, irugarrena ta laugarrena iru oiñekoak dira; bigarrena ta bostgarrena, barriz, laukoak. Gaztelu'k ba-eban onetaz bere eitxi berezia, OLERTI-n eta Musika ixillean azaldua.

Olerkari.—Sarri itandu dauste: «Ba ete dogu, leengo olerkariz kanpo, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Loramendi ta olakoren batzuk kendu ezker, benetako euskal olerkari? Gaur euren buruak olerkari edo poetatzat daukiezan askori suster bakoa iruditu jakon itauna, ziur askorik. Ez da errez, egia autortzeko, olerkari ona izatea; bai oster bertso-egille izatea. Eta ez da bardin nork bere burua poeta lez eriste, naiz besteren bat, albokoa zapalduz, poetatzat goi-aurkitu naiz jainkotzea. Gu-ur-bide zurbillez dabilleanak jokatu oi dautzu orrela.

Gaztelu nik olerkari onen maillan lerrotu izan dot aspaldi danik. Artu ta irakurri aren lanak; olerkiz idatzi ebanetik ez dozu ezertxo be kaskar danik. Guztia osotu eutzun eder ta bikain, gerra aurretik «Zeruko Argia»-n eta «Yakintza»-n asi ta gaurdaiño-ko guztia daukazu bitxi, ezin-obeto ta zoragarri egiña. Tamalez, bizitz egunik geienak euskal-girotik urrin emon ebasalako bear bada, Orixe naiz Zaitegi baten antzeko lan ugaria itxi; baiña aren lumatik urtena, oro, eder ta printzel osotua danik ezin zeinke ezetara be ukatu. Apain eta txukun idazteari «preziosismoa» esan oi jakon, Frantzia'n batez be, XVI eta XVII'garren gizaldia ezker. Eskola ontakoa Gaztelu? Orduan eskola ortakoak doguz Horazio, Dante, Frai Luis, eta geroagoko Machado anaiak, Gerardo Diego, Aleixandre, Lizardi...

Beste zeregin batzuetan arazotua ibilli jakulako, ez eban poesi askorik ondu; alan be, esana da, ondu ebazanak giar, eder, olerkitsu biribildurik itxi eusku-

zan edozein antolojitan, baita atzerritarrenetan be, ezereen lotsa barik agertzeko moduan biribildurik gero. Ez dira aren lanak bolada bateko txapligu-zarta lez, ixio ta itzali, euskal literaturan mendeak zear iraungo dabenak baiño. Orixegaitik, olerkion barnebalioaz konturaturik, epai-maikoen eritxiz onak ziralak, ainbat sariketetan sarituak izan ziran aren poesi-lanak. 1959'an, «Loramendi» darian aipamena lortu eban; 1961'an, emen Larra'n, «Olerti» leiaketan len-saria jaso eban; 1970'an, «Irun-Saria»-ren irabazle izan jakun, eta bardin 1971'an be, berak eskuratu eban «Irun-Saria», 50.000 pezeta ta Urrezko Gaztelua. Lan saritu oneik argitaratuta dagoz, baiña beste asko or-emen sakabanatuak, «Zeruko Argia»-n, «Yakintza»-n eta «Olerti»-n datozanak batez be. Gauza bitxia izango litzateke guztiokaz bilduma jori bat osotzea.

Esanak idartzeko eta jakin dagizun noraiño olerkaria genduan Gaztelu, irakur eizu «Zer ikusi ura ikasi» deritxan urrengo au.

*«Bi begi beltzez dindil ziñan
ibilli, amets-egille, lillura.
Ez oartuki, bañan bai zuzen
zure elburua, lillura.
Oi amorru gaitzen lotura!*

*Bi begi beltzen begiño arek
zozorik zeunkan begi-belarri;
zerk zeramakin baitara gabe,
ez noruntz zendun ibillera.
Oi begiñoaren ardura-ardura!*

*Bi begi beltzez dindil zeunden,
katerik gabe, bañan atxiki.*

*Nork zesaizun orduan zuri
obe zenula azkatasuna?
Egaldun oar bat zenion
zerorri: oi ura zoriona!*

*Ez lorik, ez zer besterik, ura
zenun eginkizun bakarra...
Bañan, azkenik, iratzar ziñan,
erori zitzaizun begi lausoen
gandu betea: baitara ziñan!*

*Zer zan ura? Bein bakarrik
txasta oi dan esan-eziña!*

*Aldez aurretik jakin oi danak
zer ajola dio? Deus ere ez,
baldin nork bere bere buruan ezpadu
ikasten: orduan zentzadura.*

*Zure maite-zoraldiaren
azkena, orain ondo dakizu:
zerorrek zuzen jakin dezuna.*

AITA ONAINDIA

CUBA BARRUTIK

(XVI)

Giza talde bakoitzak bere jolasak izaten ditu. Eta jolasak aukeratzeko era izan ezkerro, bakoitzak beretzakoak aukeratzeko askatasuna dau, eta onetan zorientasuna sentitzen dau. Cuban, ostera, ez da onelakorik gertatzen.

JOLASBIDEAK

Astegunez, lan orduak amaitu ostean, cubatarrak jolasbide aukera gitxi dabe. Geien baten pelikularen bat ikusi edo Tropicana aldean zugadi baten teillatu bako kabaret baten «show»ren bat ikusi edo beisbol demaren bat. Ez dago geiagorik.

Igandez eta jaiegunez, askok eta askok erabiltzen daben jolaslekua ondartzza da. Izan be, ugari dira eta oso garbiak, Ondartzza inguruetan pelota edo tenis lekuren batzuk izaten dira, edo beste toki batzutan beisbol edo boxeo ikusiteko erak be izaten dira.

Jolasbide egokiak izaten dira, beste era batetan, noizean bein izaten diran antzerki taldeak be. Adibidez, bein baten Españako Antonio Gades'en baleta ikusi genduan.

Jan-edanak be jolasbide bereziak izaten dira Cuba'ko jendearentzat norberak inbitatu ezkerro. Eurak ez dabe atzerritarrak beste erosteko erarik, eta kanpoetatik ara joandako batek inbitatu ezkerro, sakakada ederrak ekiten eutseezan eskeintzen jakezan jan-edariei. Zer esanik ez, au ango gose egoeraren ezaugarri argia do-

guna. Gogoratzea baiño ez dauka gu orain urte gitxi Euskalerrian bertan be zelango jan-tropekadak egiten ziran urtero bateko edo besteko jaiak zirala eta. Berberau gertatzen da Cuban be: cubatar bat etxera eroan eta ron botilla bat ateratzen badautsozu, ez jatzu etxetik urtetzen utsitzera-koan geratzen diran azkenengo tantakadak zurrutatu arte. Janari arloan be berberau egiten dabe.

KOMUNIKABIDEAK

Gure errietan sarritan erabiltzen ditugun jolasbideak komunikabideak izaten dira. Eta zorritxarrez askotan izan bear litaken baiña askoz geiago. Gogoratzea baiño ez dago urtearen azkenean ume askok eta askok eskolan baiño telebisioren aurrean ordu geiago sartzen dabela.

Cuban, ostera, telebisiok eta irratiak gogaigarriak dira. Fidel Castroren egitasmo eta egitarauen erakusbide utsak baiño ez dira: iraultza asmoak, epe zeatz baten barruan lortu bear diran elburuak bai nekezaritzan, esnegintzan, landaretzetan, akeita lurretan, eta abar, eta abar.

Iragarkietan ikusten danez, jarritako elburuok uste izan baiño askoz ariñago, askoz epe laburragoan lortzen dira eta ugariago gaiñera. Baiña, egia esan, eta nik neuk ikusi aal izan dodanetik, esateetatik egiteetara %-tik 50aren alde izaten da.

Ulerbidegarritzat, kañaberaren arazoa aitatuoko neuke: Fidel Castroren iraultza aurretik, gaurko denporarik 3/4ean egiten zan, eta au orain dabezan makinaria aurrerakuntza barik. Langille gitxiagoz eta «igande gorriak» kontuan izan barik. Jakiña, askoz epe laburragoan eta uzta ugariagoz.

Urrutizkiñak poliziaren menpe aurkitzen dira, edozein momentutan zer esaten dozun esaten jartzen jatzuz eta. Bein baiño geiagotan jazo izan jat aurrerago baten neuk telefonoz esandakoa barrio entzutea.

Kanpora deitu bearra izan ezkerro, iraupenez jokatu bear dozu: telefono-etxera eskabidea egin ostean, ordu bitik lura itxaron bearra izan dot baten baiño geiagotan. Beste batzutan gogaitu-gogaitu egin ostean alde egin bearra be bai.

Aldizkariak: La Habanan bat baño besterik ez dago: bere izena «Bohemia». Onen orrialdeetan Fidel Castroren itzaldiak edonon agertzen dira; era berean aitutzen dira aurretiz jarritako elburuak zelan lortu izan diran, boxeo, beisbol, edo Errusiarrak Cuba'ri emon dautsozan laguntzen azalpena, edo antzerakoak. Jakiña, iparmerikarrak oso salatuak izaten dira.

Izparringi bi baiño ez dago Cuban: Grama eta Juventud, 8 orrikoak. Eta aldizkariak erakutsi daskuen jokabide bardiña dabe.

PIRU LEGARRETA

ESKERRIK ASKO!

ZER, aldizkari polita, zuri eskerrak emoteko ordua da.

Zergaitik? Ba, zuri esker une zoritsu asko izan ditudalako. Orrexegaitik!!!

Barru barrutik maite dot amaren bularragaz batera, Jaunak emon eustan euskera bigun eta sakona. Nire biotz biurtu da bai ta nire odol bere.

Euskalki danak maite nik, danak ama baten zatiak diralako, baiña danen gain, bizkaiera.

Urteotan euskalki guztiak beerakada aundia egin dabe, batez bere bizkaierak. Gure euskalki au galtzeko bidean ipiñi dabe erbestetarrak, beste euskalkien jarraitzaileak, batua bakarrik nai dabenak eta, bai ta bizkaitar arro (parkatu) konplejodun pedante askok. Euron artean dagoz euskaldun barri asko bere.

* * *

Oneik, alde batetik txalogarriak dira, lan aundiagaz, adoretu euskera ikasi dabelako baña akatz bat dauke: Euskera ez dala ondiño euren biotz eta odol biurtu. Geienak euskera batua bakarrik ikasi dabe.

Euskera ori barria da, oraindik ez dauko edestirik.

Orreik erriko euskera, batez bere bizkaiera ilten ikusi ta ez dabe miñik artuten, eurotan burua biotza baiño geiago ta aundiago dalako, eta biak bear ditugu euskerak iraungo badau.

Jaiotzatik euskera sartu dogunok guztiz maite dogu geure biotzaren biotza lez eta euskadun batek euskera galtzen dabela ikustean min artzen dogu biotzeko atal bat galtzen dogu.

* * *

Zenbat negar egin dogun eta egin bearko dogun bizkaiera galtzera doala ikusiaz!!! Irakasle batzuk eta bai ta guztiz maite dogun eusko jaurlariko ta inguruko batzuk baztertuta, umezurtz legez erabilten

gaitue. Gure umetxoai txiki txikitatik erakutsi bear jakela euskera batua aginduagaz.

Orrela bizkaiera galduko da eta, bildur naz euskera danak bere galduko ete diran.

Ba dabiz, lan ta lan maixuak eta anderaiñoak ugarituten esanagaz: Ez daukaguz bear diran beste irakasle, eta beste aldetik eundaka irakasle alde batera itxi eta bastertu ditue.

Nortzuk dira irakasleak.

Umeen gurazo euskaldunak. Lenengo irakasleak, euskeraren giro, biguntasun eta biotzaren jaubeak.

Euskera batu bat egiterakoan, kontuz ibili, Erriko euskeragandik datorren aria ta urbidea ez eten, Erriko euskeran dagolako euskeraren sena ta guna, eta ori eten ezkerro beste euskalki oso ezbardin batek urtengo dau euskeraren gizaldi luzeetako aberastasuna galduz, ta, geiago, txarrago dana: erdalki erromanze batek urtetea.

Erriko euskera bera indartu bearrean gagoz umetatik euskaldun semeai erriko euskera ta Bizkaian Bizkaiko euskera erakutsiagaz.

Gero ikasi dagiezela euskera guztiak, Batua bere bai, ganorazkoa bada.

Zuok bizkaieraren arerio ta iltalleak, ez negarrik eragin iñori. Ez buru ariñak izan. Biotz geitxoago zuen bularretan.

Begira atzerritarrai eta zuori zuen izkuntza kendu nairik iñor baletor, zer egingo zeunkie? Itzez ta atzamar ta agiñakaz zeuena zaindu. Orixe berberori jazoten jaku bizkaiko euskera maite dogunoi. Gaurko naikoa eta zuk «ZER» maite orrek jarrai aurrera, iraupenenan dagolako garaipena.

Asetu illero illero guk bizkaieraganako daukagun egarria!!! ESKERRAK; ESKERRAK, MIILA BIDAR ESKERRAK!!!

GALLASTEGI'TAR KAULDI

NEGUA DATOR

*Aitaita ta amama
sarturik etxean
euren odola makal
euskik igastean.*

* * *

*Jarririk sutondoan
epelen ondoan
orrela euren odol
beroa zanetan.*

* * *

*Edesti ederra da
eurak diñoena
euren erakutsi da
danetan onena.*

* * *

*Euren bitartez dator
erriko jakintza
entzun barriz diñotzut
euren bigun mintza.*

* * *

*Euskal sutondoetan
zenbat ipuin polit
da dator euren barrun
jakintza ederrik.*

* * *

*Luzaro bizi beitez
aitaita amamak
ondo ezi daitezkan
geroko euskaldunak.*

GALLASTEGI'k

URTEA AMAITZEN

(1982)

URRILLA

Urrilla, auteskundeen illa: auteskundeak irabazteko burruka gogorra.

- 5 - Calvo Sotelo'k Garaikoetxea'ri «koronelen Golpe»aren zeatzasunak emon. Autonomia erakundeek LOAPA'ren aurka goradeitza (errekursoa) egin dabe.
- 10 - 1522 an, Naparroa'ren azkatasunaren aldez burrukatu ziranen oroitarri barria, Amaiur'en.
- 33 - Bakio'n, Portugaldar jatorriko 33 urtedun gizon bat il dabe, dirudienez droga kontuakaitik.
- 9 - Guardia Zibilla izandako bat illa, Irun'en.
- 13 - Markina'n, Guardia Zibil 2 zaurituak, txarto.
- 16 - Leitza'n, gizon bat illa. Poliziak Gasteiz'en tiroz ildako senar-emazteak, ez ei ziran HB'koak.
- 19 - Goardia Zibillak Lasarte'n zaurituriko M. Garziandiak il aurretik diño, berak ez ebal kontrolik igaro. Lergaillu erreskadeak estanda egin: Donosti'añ, Bilbo'n, Gasteiz'en eta bik Naparroa'n.
- 25 - Ertzaina'k bere ertzaintza asi dau: Ajuria Enea, Lakua, Eusko Lege Biltzarra eta Aldundiak zainduko ditu.
- 28 - Estadu osoko auteskundeak boto-emoilleak ugari: «golpismo»ari aurka egin gurea agertzen da.

- 29 - PSOE: geiengo aundia, UCD porrokatua, AP asko goratua. Kataluña ta Euzkadi'n, abertzaleak sendotuak: bion artean 30 jarleku. Gasteiz'en polizia bat illa; bat zauritua oso txarto eta 7 zauritu.

AZILLA

- 4 - ETA'k Madril'en, «Acorazada Brunete»ko talde-burua il dau.
- 6 - Ipar Euzkadi'n, ETA'ren gorenko zuzendaritzat joten diran, J. Ansola eta Karlos Ibarguen atxilotu.
- 6 - España-zear, izugarrizko jendetzak inguruan dituala ibilli dan Aita Santua Euzkadi'n: Lergaillu bat ipiñi dabela ta, ordu terdi beranduago lurre ratzen da Loiola'n. (Ze komedia izan da?) 100.000 inguru alkartu Joan Paulo'ren inguruan. Ostetza aundia Xabier'en be, arratsaldean.
- 8 - Aita Santuaren etorreran, Loiola'n egindako aldakizunakaitik, Euzko Jaurlaritzak bere miña agertzen dau. Eskuardean erabillen lergailluak eztanda eginda, mutil bi zaurituak, txarto.
- 11 - «Diario de Navarra»n, 4 kilo goma 2'k eztanda egin.
- 13 - Bilbo'gandik askaturik. Txorierri'ko erriak euren jabetza berreskuratu. ETA'k, Orbegozo olagizona baitzen dau, Zumarraga'n. EAJ'ren abots Kongresuan, Bizkaia izango da; Senaduan, Renovales.
- 18 - Errenteri'n, ETA'k, 3 langille tiroz zauritu. Olarra'ren «plan

antiterrorista» dala ta, asarrea alderdi guztiak. Fraga'k ostera, ulertzekoa dala diño.

- 27 - Iruña'n, 25 en bat napar dantzari talde, ikurriñaren alde sutsu agertu.
- 28 - Iskanbillak Errenteri'n, HB'ko taldeek atentaduaren aurkako agerraldia apurtzean.

LOTAZILLA (ABENDUA)

- 4 - Pezetea, % 8 jatsi eta gasoliena igon.
- 9 - Giza Eskubideen Aldezko Alkargoak: España'ko estaduan torturea zabal erabilten da. Jon Gangoiti eta I. Anasagasti'k, EAJ'ren ordezkari-tza Europa'ko Partiduen Batzarrean.
- 12 - Guardia Zibil 1 illa eta beste 1 zauritua txarto, Tolosa'n.
- 14 - A. Areizaga, Irrati-Eusko Telebistaren zuzendari orokor; J. Zubiaur «Eusko Trenbi-deak» zuzentzera igaro.
- 24 - «Herriz Herri» ekintzak, 60.000 lagun bildu ditu: 4 illabetea, 45 erritan, 367 eman-kizun; 87 antzezpen, 48 musikaldi, balet ekitaldiak eta 16 zine emanaldi.
- 30 - Irun'en, soldadu jantzitako bik, guardia zibil bi il.
- 31 - Orbegozo askatua; 47 egunean, ETA (p. m)k, Naparroa'n, Donamaria'ko borda baten euki dauana, Guardia Zibillak askatu dau. 1982 urte zarrak, amai on bat izan dau.

MAITENA'k

OITURA SAKON POZGARRIA

Urte guztietan bezela, aurten bere, otsaillaren lauan, oitura samur bateri jarraituko dautso gure gaztediak: Agata deunaren goratzarreak abestuko ditu etxerik etxe ta erri ta baserrietatik zear alkartasun ta alaitasun zintzoakaz.

Oitura onen sustrai, oiñarri ta zergaitia Agata deunaren bizitza miragarria da.

Irugarren gizaldian, an Zizilia-ko Katanian bizi izan zan neskatil lirin ta askar bat.

Agata bere izena.

Agata itza pitxi eder bateri deitzen jako ta pitxi eder ta zoragarria, Agata deuna.

Gazte gaztetatik bere garbitasun oso osoa, Jaunari ezkeiñi eutsen. Edertasunez beterik agoalako gazte asko ebizan bere billa ezkontzeko usteagaz, euretariko bat ugarte aretako agintari ta buruzagia, Kinziano izenduna zan, paganotarra bera.

Agatak ezetza emon eutsen, kristaua izanik garbitasun guztia Jaunari ezkeiñita eukalako.

Bere erantzuna beti auxe: Nire gogoko, senar bakarra, Kristo da.

Kinzianok, Agatak Kristo ukatu egian, buruzagiaren aginduz bularrak neskeari ebagitea agindu

eban, soin billoitza artz mee zorrotzakaz, urratu eutsen, gorputz saiets albo biak, txingar gori-gori gainean etzanez etab... etab... baiña Agatak, geroago ta indartsuago, ezetz eta ezetz erantzuten eban.

Neska polit liraiña, gorriak eta bost ikusi ta gero abestitan eta irribarreka il zan bere oso maitearen ondora joteko.

Martiri onen entzutea arin-arin, zabaldu zan kristau guztien artean.

Gizaldi asko geroago, Euskal Erria kristautu zanean, bardin martiri onen entzutea zabaldu zan eta beraganako onespina bizi-bizi dago gure artean.

Ordutik asi ta, Agata deunaren jai aurreko illuntzean, batez bere mutil gazteak, argi - mutil - kriseilluakaz eta makilla sendoakaz ibiltzen ziran etxerik etxe Agata deunaren goratzarreak abestuten, lenengo gizaldietan, mutillak neskatillai egiten eutsen erronda lez zan, oneik, Agataren antzera, garbitasuna zainduten ebelako ta mutil orreik, kristau zintzo bezela neska garbiakaz ezkondu nai ebelako. Ezkondu arteraiño garbitasuna gardeten eben neskekaz.

Geroago, euskal erriari Foruak kendu ta gazteak soldaduzkara joan bear izan ebenean, Agate deu-

naren erronda, urte aretan soldaduzkara joan bear ebenen egitea biurtu zan.

Orain, bai errietan, bai ta baserrietan oitura eder ori asko indartuda.

Gaur-egun, zar ta gazte mutil nai neska, neskato ta mutikoak ibilli oi dira erronda orretan, bide batez Agata deunaren goratzarreak eta etxeetako jaun andreen zintzotasuna abestuaz beartzuentzako eskabidea egiten dabe.

Illuntzi garbi ta alaia Agata deunaren aurregunako illuntzia.

Samintasun asko dira gure artean, esaera zarrak esaten dauana esan geinke: DORREAN KANPAIAK DILIM DALAN, GAURKO GURE BIZI, OLAN ALAN; baiña gure gazteak euren oitura onagaz gure ozpiña gozatu ten aleginduten dira.

Dana ederra, dana euskalduna gure muiñean sartuta dagoan oitura eder samur ori.

Eutsi ta jarrai oitura orreri euskal erriko izatearen ataltxo bat biurtu dalako.

Euskal erriak kultur bidetan beti aurrera egin bear dau, baiña, beti betiko izakeran oiñarriturik.

GALLASTEGI'tar KAULDI

QUMRAN'GO ESKU-IDAZKIAK

VI GORAPEN-ABESTIA

¹⁹Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
illobitik onik atara nenduzulako.
Eta Abaddon'en sakonetatik ²⁰goi betikora salto
eragin eusten.

Ni bide-zidor zuzenetik noa [...] amaitu-eziña [...].
Nik ba-dakit itxaropen bat geratzen dana,

²¹buztiñetik eratu zenduan arentzat,
batzaldi betikora eltzeko.
Zeuk garbitu zenduan pekatu moltzoaren espiritu zita-
tala.

Zeuk jarri zenduan santuen gudaroztearen erreska-
dan.

²²Zeruko semeen batzaldiko alkartasunean sa-
rrerazo zenduan.

Gizonari betiraun-zoria ezarri zeutsan,

²³jakintza-espirtuakaz,
arekaz batera zeure izena goratzeko,
zure egintzak begiratzean zeure arrigarriak azaltze-
ko.

²⁴Ni, buztin-ontzi au, nor naz?
Uretan oraatuta ba'nago,
zein da nire adorea?, zein nire indarra?

Ni, dongakeriaren erreñuan bizi nintzan au,

²⁵galduen zoria eroateko izentatuta nengoan au,
doillor-espirtu au,
atsekabe ta zoritxar aundi artean ez-ezagun niñoan
au.

Tentaldiak soillik urteten yatazan bidera.

²⁶Obi itzalak zabalduko dira —arrakalak la-
kioak lez—,
dongakeri-amuak izango dira atonduak,
galtze-sareak zabaldegi galantak artuko dabez uren
gaiñean.

²⁷Lezako dardai guztiak egaz urtengo dira.

Ez dabe euren jo-mugan utsik egingo.
Ilgarriro zaurituko dabe, itxaropenik itzi bagarik.

²⁸Epaiaren sokea galduen gaiñera jausiko da,
sumiñaren ondorenera bertan-beera itzitakoen gai-
ñera;

²⁹Belial diran guztientzat sumiñaldia eldu daite-
nean [jazoko da];

eriotz-oiñestunak itxi daitezanean, ezetara be egin
eziñik;

Belial'en ur-boladak urpideak urgoriaz aldatu da-
giezanean.

Suak iruntsi egingo dauz ur areitatik edan dagien
guztiak.

Arein aldamenean egon daitezcan zugatz guztiak on-
datuko dauz,

eze ta adartsu egonarren be.

³⁰Suak erre egingo dauz lurreko sakonak.
Aren zabalgunea, ikusi-ala urrun, eremua izango da.

³¹Mendien azpiak galdatu egingo dira,
arkatxen zusterak pikea lez zirinduko dira.

Su iruntzailleak itsas-aundiraiño doa.

³²Belial'en ur-boladak Abaddon'en amiltzen di-
ra, gaiñez egiteraiño.

Itsasoko sakonak orroka diardue;

aren olatuak galantak dira,

egundokoak, baiña odolezkoak.

³³Garrasika dago lurra munduaren gaiñera da-
torren ondamediagaitik.

«Garaipena!», diño deadarka azpikariak.

Lurreko bizilagun guztiak burutik eginda dagoz,

³⁴alboraka dabiz ondapenaren erdian.

³⁵Jaungoikoak bere abots aaltsua joerazoten
dau.

Aren bizi toki santua gorabeeratu egiten da

Aren aintzaren tximist-isil dirdiratsuz.

Zeruetako gudarozteak bere abotsa jasoten dau.

Munduaren ondopeak dardaraka ta koloka dagoz.

³⁶Zeruko indartsuen guduak mundua zigorkadaz
astintzen dau,

eta betirauneko ondapena bete arte ez da zigorra
geldituko.

Alantxe izango da amaia.

JOSE MARI ARTETXE

(G. B.)



EZAGUTU GENDUAN

Ondo ezagutu genduan, amar urteko artu-emonetan, Zeanuri'ko Jose Mari Artetxe benetako euskalzalea, benetako abertzalea.

Gorabera ta joan-etorri aundiak izan ebazan bere bizitzeak aurtengo urrillaren 14'an amaitu zan Esukalerraren bazter eder aretan.

Baiña edestu dagigun laburkiro ta al danik zeatzen bere bizitza latz eta itxaropentsua.

GAZTAROA

Artetxe'ren gaztaroa, umetatik asita, latza izan zan, lanak eta ez-bearrak ondo eundua.

Ikastolara joateko adiñera eldu zanean, Zeberio'ra morroi joan-berra izan eban, zortzi urteko mutikoa zala. Ez eban ba lenengo ikasketak egiteko be erarik izan soldadutzara joan-aurrean.

Gizarteak beragan bete barik itzi eban oiñarriko utz-une ori, soldadutzan bete eban. Antxe ikasi eban, al izan eban neurrian, irakurten eta idazten, baita gero gudatean ain bearrezkoak izango ebazan izkillu-bideko trebetasunaren jakingarri batzuk be.

GUDATEAN

Ogei ta amaseigarren urtean, España'n Erkalaren (Errepublikaren) aurka eta Euzkadi'n emengo Jaurlaritzaren eta Erriaren aurka gudaldi gogorra sortu zanean, Jose Mari gudalburu (teniente) izendatu eben ARANA GOIRI GUDARI-TALDEAN eta bere burrukaldirik gogorrena Saibi-gaiñean izan zan. Antxe jo eban buruan esku-lerkai (bonba) batek eta zaurituta gaiso-etxera eroan eben.

ESPETXEAN

Gero millak euskaldunak izan eben zori bardiña izan eban eta bost urte luze igaro ebazan giltzapean.

Ez ziran beretzat alperrik galdutako urteak izan: Antxe ikasi eban Artetxe'k zurezko irudiak egiten.

Ez dira asko berak egindako irudiak, baiña bai ederrak eta trebetasun aundikoak. Beti Euskalerriko gaiak begira.

Ez dakit an ala lenago ala geroago, arria lantzen be ikasi eban eta argintzan egin eban guda-osteko urteetan bere lana.

BERTSOLARIA

Euskal-jakintzari eldu al eutsen aldetik eltzeko gogoaz, bertsolaritzan be egin ebazan bere ekiñaldiak eta txapelketa batzutura aurkeztu be bai.

Gero, zori txarrez, abotsa osooan galdu eban eta ezin jakin arlo onetan bere gaitasuna ta trebetasuna noraiño elduko zan.

ERRI-LANETAN

Guda osteko urteetan, argintzarako bere trebetasuna baliatzeko, Peru ta Saltzedo bere anaiak la-

gun ebazala, erri-lanetara sartu zan bizi-bizi. Iru anai oneik egin-dako lan batzuk gogoratzekotan, Arrieta'ko iturria ta Areatza/Billato'ko illerria gogoratu bear.

Martin Deuna'ren jai-inguruan pozik joaten giñan Arrieta'ra ango lagun zarrak agurtzera eta tokirik ba-egoan, aparitxua egitera.

GAISORIK

Orain amazapi urte eztarriko gaiso txarrak jo eban Artetxe. Ebaiketa arriskutsua egin bear izan eutsoen, baiña, zori onez, bizirik urten eban, naizta berba egiteko abotsa zearo galdu. Geroago abots-gaillutxu bat erosi eban eta orrelan errezago ulertzen jakon esan nai ebana.

EDATETXEAN

Zeanuri'n edatetxe bat eukan Artetxe'k bere emazte ta etxekoen laguntzaz. Ara joaten jakozan bere lagun zar eta barriak bera agurtzera eta biotz zabalaz artzen ebazan.

Ez da edatetxeko lana beti gozua izaten, batez be berak eukan lako eragozpena, barbarik argi egin eziña, daukanarentzat, baiña al danean al dana eta aurrera egin bear.

SENDIAREN POZA

Artetxe'ren pozik aundiena, eguneroko poza, bere seme-alabak aurrera egiten ikustea zan eta seme-alaben urrengo illobatxoak izaten ebazan artu-emon gozatsuak. Ori bai ba-zala bizitzako goraberak emoten eutsoezan garraztasunak gozatzeko bidea, Bixenta Larrabide, bere emaztea lagun ebala.

OLAZAR'tar Martin'ek

NOK BULTZATU NAU?

Bilbo'ko ibai-ertzean notintza aundia dago ibaira begira.

Ibaiaren ur gaiñean, ito-bearrean, uretara jausi dan eta uger ondo ez dakian gizon bat itoteko arrisku larrian.

An or emen olako itaunak entzuten dira:

—Ez dago emen uger dakianik iñor? Gizonak ito egin bear dau!

Alako baten, blasta! uretara gizon gazte bat. Urreratzen jako ito-bearrean dagoanari eta astiro-astiro toki egoki batera eroan eta atera dau gizon ori.

—Zorionak! Eskerrik asko! Lan ederra egin dozu!

Urreratu ziran ertzaiñak... Etorri zan berebil ederrean Aldundiaren Zuzendari guztiz agurgarria...

Artu eben guztien artean gazte adoretzu ori eta omenaldi ondo irabazia eskintzeko Aldundi ederrera eroan eben.


An izan ziran txaloak! An goratarreak! An berbaldi ederrak!

Azkenean urreratu jakon Aldundia'ren Zuzendari jauna eta esan eutson:

—Gazte! Ederto jokatu dozu! Gizon errukarri baten bizitzea gaizkatu dozu! Artu egizu urrezko domiña au gomutagarritzat! Eta gaiñera mesederen bat eskatu egizu eta gure eskuan ba'dago, pozik beteko dogu zure guraria! Zer egitea gura dozu zure onura naz atsegiñerako?

Jauna! —erantzun eban gazteak— nik ez daukot une onetan gurari bizi-bizi bat baiño. Bultz eginda ibaira bota nauan gizon madarikatua nor izan dan jakin gura neuke!...


29.^a ERANTZUNA



EZKERRETIK ESKUIRA

1. Aguerrido.
2. Padrino, padrastra. Es/y.
3. Anoche. Día.
4. Lengua, idioma. Acostumbrarse.
5. Golfo de mar.
6. Húmedo, fresco. Los las. Palo largo.
7. Navarro. Malo, defectuoso.
8. Sufijo. Intej. de apuro.
9. Limpio, puro. Vos, usted.
10. Hoy. Motivo, razón.
12. Ilimitado. Tres.
13. Suf. distribución numeral. Mancha.
14. Oriundo de. Vos/usted.
15. Apalabrar. Desacostumbrado.

30.^a



GOITIK BERA

1. Manifestación. Hermano.
2. Duda, vacilación.
3. Letra, sílaba. Perdiz.
4. Bautizar.
5. Grueso, grosura.
6. Puerta. Cada noche.
7. (el) Reloj.

8. Vasco.
9. Cerca. Hora.
10. Arreglar, componer.
11. Tú. Salinas.
12. Mejor.
13. Nosotros. Fotografía. Menudo.
14. Sufijo.
15. Insustancial. Inmediato.

NEGAR ALA BARRE?

Orma batzutan INDEPENDENTZIA ikusi dot. Norberaren buruaren jabetza, iñori kalterik egin bari, bidea ondu ta zaintzea, iñoiz be ez. Independentziak atal asko dauz.

Bizkaia'n, Franco illaz gero, izan dogu, bizkaieraz egiñik, ondu arazoteko askatasuna; Independentzia.

Ene baiña! Prakak, ia ia, gerrian beeratu dauskuez. Zuberoa'ri egin dautsoena guri laster baten egingo dauskue, batu-nastuaren bidez «telebizioa mendiotzat» arturik.

Danona dan txindi-zorroa batzun onerako eralgirik, ikusi dodazan irarkaiak emen doguz, gitxi batzuk baiño ez ba'dira be: Begoña'ko Basilika, Plencia-Gaminiz. Plentzia beraren «c» jatorraz.

Bermeo ta Gazteiz barruan diralarik, zenbat portu doguz Bermeo'tik Gasteiz'era? Bermeo'n Urgaziportua, Barazar'en basaportua eta Gasteiz'en aireportua.

Futbol-zelaia: Futbol-landa zelaia ba'da, aire-zelaia zergaitik ez? Oinezkoen alderdi historikoa, Hospital-Ospitalea. Ospitaleak ez dauka «H» historikorik. Kamioiak. Kamioiari Amerikatar euskaldunak «Truk» edo truck edo alangoen bat. Eta Prantzia'n zelan? Angoen barririk ez dakik. Batu-nastuaren onerako «kamioia» artu dagiela.

Eusko trenbideak. Konkurso publikoa!

Ene irakurle! Errizka ta urietan jasoten diranak jasoten dirala, ez dozu izan irribarreka egoteko edo ibilteko aukerarik. Oraintxe bai, iraintxe dozu, izara zabalaz legortu al ba'zenduz, barre-karkada-malkoak.

Euskeraz, txinoz ala erderaz ete dogu ba?

Jaungoikotxuek egiña dirudi, euskerarik onenaz, txaplataz bete ba'dabe be. «Bilbo-Plentziako linearako 18 unitate-tren elektriko adjudikatzeko».

Administrazio-kontzeilluaren izenpeaz agertu zan.

LANDAJUELA'TAR A'K (†)

EUSKERAZALEAK EUSKERA ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEA

Laguntzarako Bazkideak artzen doguz
Colon de Larreategi, 14, 2.^a, eskoia
BILBAO'N

Euskerea ikasteko
Liburuak
Mintzak (diskoak)
Irakastaldiak
ZER.
Egutegia
Irrati-Ekiñaldiak

EUSKERAZALEAK

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

50 PEZETA